LIZITAZIOA	Julene Azpeitia Literatura Lehiaketako lan sarituak argitara emateko liburuaren diseinu, maketazio eta inprimaketa egiteko zerbitzua.
MOTA	Zerbitzua (prozedura ireki sinplifikatua)
AGIRIA	03. Plegu teknikoa
ESPEDIENTEA	31/2026/KN_P1
SAILA	Kultur Ekintza
ARDURADUN TEKNIKOA	Amaia Aranaga Libano

A. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko den kontratu honen xedea da Julene Azpeitia Literatura Lehiaketako lan sarituak argitara emateko liburuaren diseinu, maketazio eta inprimaketa aurrera eramatea.

Kontratu honen bidez, beraz, esleipendunak "Julene Azpeitia Literatura Lehiaketako liburua argitaratuko du, plegu teknikoan jasotzen diren eskakizunak betez. Hortaz, Udalak eskatutako ezaugarriak baliatuko ditu liburuaren diseinua eta maketazioa egiteko. Udaleko Euskara Saila arduratuko da testuen edizioa prestatzeaz eta ilustrazioak egiteaz, eta bata zein bestea, enpresa esleipendunari emango dizkio argitalpena egin dezan.

B. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA BEHARRIZANEN JUSTIFIKAZIOA

Durangoko Udalak 1983. urtean antolatu zuen lehen aldiz Julene Azpeitia Literatura Lehiaketa, udalerrian entzute eta sendotasun handiko lehiaketa, hain zuzen ere. Ordutik hona, ez da etenik egon literatura-lehiaketa honen antolaketan. Lehiaketak bi fase ditu: bat, idazlanak jasotzea eta sariak banatzea; eta bi, saritutako lanak argitaratzea.

Durangoko Udalak literatura-lehiaketa honi jarraipena emateko asmo irmoa dauka.

Julene Azpeitia Literatura Lehiaketak bat egiten du Durangoko Udalak 2025-2028 epealdirako sustatu eta onartutako AROA Planean jasotako ondorengo erronkekin:
EE.1.1.10.2. Euskarazko sormena bultzatzeko Julene Azpeitia lehiaketa antolatu: ipuinak, olerkiak eta bertsoak.
1983an egin zen lehenengoz Julene Azpeitia lehiaketa, herriko eta eskualdeko gazteen sormena sustatzeko horren garrantzitsua dena. Ibilbide luzea izan du, eta datorren urteetan ere egitea aurreikusten da.

Durangoko Udalak ez dauka kontratuaren xede den zerbitzua eskaini ahal izateko beharko liratekeen baliabide espezializatuak, ez maila teknikoan, ez eta materialean ere. Hori dela eta, eskaini beharreko zerbitzuaren izaera aintzat hartuta, horretan aditua eta aritua den enpresa bat kontratatu behar da eta enpresa esleipendunak helburu horretarako propio sortutako tresnak erabili behar izango ditu; bestela, ezinezkoa izango da aipatutako zerbitzua garatzea.

C. ZERBITZUAREN EZAUGARRI ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Esleipendunak betebehar hauek bete beharko ditu, ezinbestean:

1. Baldintza tekniko, ekonomiko eta administratiboen orri hauetan ezarritakoaren arabera beteko du kontratua. Halaber, esleipen honen xede den zerbitzua gauzatzeko, Durangoko Udalaren Euskara Sailak emandako aginduak beteko ditu.

2. Zerbitzuaren **egiteko zehatzak** honako hauek dira:
- Euskara Sailak bidalitako literatura-lan sarituak, horietako bakoitzari lotutako ilustrazioak eta saridunen argazkiak jaso, liburu formatuan maketatu eta inprimatzea.

- Euskara Sailak zehaztutako baldintza eta ezaugarriak baliatuko ditu liburuaren diseinua eta maketazioa egiteko. Udaleko Euskara Saila arduratuko da testuen edizioa prestatzeaz eta ilustrazioak egiteaz, eta bata zein bestea, enpresa esleipendunari emango dizkio argitalpena egin dezan.

3. **Lana egiteko modua eta entrega-epea**.
- Materiala: Durangoko Udalak, beranduenez, 2026ko azaroaren 2an emango dizkio esleipendunari liburua egiteko behar duen materiala; hau da, testuak zuzenduta, ilustrazioak eta irabazleen argazkiak.
- Diseinua eta maketazioa: lizitatzailearen ardura da liburuaren diseinua eta maketazioa prestatzea eta Udaleko solaskideari helaraztea.
- Behin-behineko frogak: lizitatzaileak behin-behineko liburua bidaliko dio e-postaz Udaleko Euskara Saileko teknikariari honako helbide honetara: euskara@durango.eus.
- Behin betiko onarpena: Euskara Saileko teknikariak onespena emango dio liburuari, berak hala irizten dionean, baina, betiere, azaroaren 18a baino lehen, lizitatzaileak denbora izan dezan liburua inprimatzeko.
- Entrega: Entitate esleipendunak 2026ko abenduaren 2an entregatuko ditu liburuak Durangoko Udalean.

4. **Liburuaren ezaugarri teknikoak**:

Tamaina: 165 x 240
Orrialdeak: 120 orrialde-inguru koloretan inprimatuta + guardak inprimatu gabe.
Paper estukatu matea 170 gramokoa.
Azalak: 150 gramo matean koloretan inprimatua eta plastifikatuta matea alde bat.
Koadernaketa: tapa gogorra al cromo.
Maketazioa: liburu osoaren maketazioa egin behar da.
Eskaneatzea: ilustrazioak eskaneatu behar dira.
Ale-kopurua: 300.

5. Julene Azpeitia Literatura Lehiaketako liburuaren jabetza intelektula Durangoko Udalarena izango da.

6. Zerbitzua behar bezala gauzatuko dela bermatzeko, esleipen-hartzaileak, gutxienez, honakoak beteko ditu:

- Lan honen ardura izango duen langilea edo langileak, gutxienez, ondorengo titulazioa izango du(te): Goi mailako teknikaria diseinu grafikoan, edo baliokidea.

- Lan honen ardura izango duen langilea edo langileak euskarazko C1 maila egiaztatuta izan beharko du(te).

- Udalarekin harremanetan solaskide izango den langileak ere euskarazko C1 maila egiaztatuta izan beharko du.

7. Durangoko Udalarekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

8. Durangoko Udalak ez du esleipendunaren esku inolako elementu pertsonalik jarriko, programaren kudeaketa operatiborako beharrezkoa izango den pertsonal teknikoa izan ezik.

9. Enpresa esleipendunak Durangoko Udalak erabaki ditzakeen kontrolak onartuko ditu. Horrez gain, jardueraren garapenari lotuta eskatu lekiokeen informazio eta agiri oro aurkeztu beharko ditu.

10. Esleipen-hartzaileak kontratatutako zerbitzuen ondorioz lortzen dituen datu guztiak isilpekoak izango dira, eta, beraz, ezin izango ditu inola ere zabaldu. Zabalduz gero, kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio bai Durangoko Udalari, bai isildu beharra hausteak ekarritako kalte eta galerek erasandakoei.

11. Zerbitzua gauzatzeko behin betikoz arduratuko den **diseinatzaile grafikoaren datu akademikoak ziurtatzen dituzten agiriak** aurkeztu beharko ditu esleipen-hartzaileak, horien artean, euskararen ezagutzan, gutxienez, **C1 maila edo baliokidea duela egiaztatzen duen agiria**.

12. Esleipen-hartzaileak Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko lege arauak bete beharko ditu, bereziki, 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, 39/1997 EDa eta berau garatzen duten gainerako araudiak.

13. Prestazioa ez bada behar bezala betetzen, aplikagarria izango da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 192. artikulua.

14. Zerbitzua aurrera eramateko esleipendunak, gutxienez, diseinatzaile grafiko bat kontratatu, eta Gizarte Segurantzan alta emango du.

15. Ez da lan-loturarik egongo zerbitzua aurrera eramateko ardura du(t)en langile(ar)en eta Durangoko Udalaren artean. Hortaz, langilea(k) berariaz egongo d(ir)a enpresa esleipendunaren agindupean, bai zuzendaritzari dagokionez, bai antolaketari dagokionez, legez ezarritako arlo eta ordena guztietan. Horrenbestez, esleipenduna izango da erantzule bakarra, eta behartuta egongo da kasuari ezargarri zaizkion legezko xedapen guztiak betetzera, batez ere kontratazioari, gizarte segurantzari, laneko arriskuen prebentzioari eta zergari buruzkoak; hala izanik, aipatutako langileak ez du inolako loturarik izango, ez juridikorik, ez lan-arlokorik, Durangoko Udalarekin, kontratuaren arabera egokiak diren eta legeak edota kontratuak agintzen dituzten kontrolatzeko eta ikuskatzeko gaitasunak alde batera utzita.

16. Kontratuaren xede diren lanak egin dituzten langileak ez dira, inondik inora, Durangoko Udaleko langile bihurtuko.

17. Baldintzen plegu honetan xedatutako edozein eginbehar betetzean sor litezkeen eragozpen edo atzerapenen aurrean esleipen-hartzaileak aldaketarik egin behar balu, Durangoko Udalari jakinarazi beharko lioke aldez aurretik, proposatutako aldaketa ontzat jo dezan.

D. ZERBITZUA EMATEKO GIZA-BALIABIDEAK ETA BETE BEHARREKO GUTXIENEKO BALDINTZAK

Zerbitzua behar bezala gauzatuko dela bermatzeko, esleipen-hartzaileak, gutxienez, honakoak beteko ditu:

- Lan honen ardura izango duen langilea edo langileak, gutxienez, ondorengo titulazioa izango du(te): **Goi mailako teknikaria diseinu grafikoan, edo baliokidea**.

- Lan honen ardura izango duen langilea edo **langileak euskarazko C1 maila** egiaztatuta izan beharko du(te).

- Udalarekin harremanetan solaskide izango den langileak ere euskarazko C1 maila egiaztatuta izan beharko du.

E. HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8. artikuluak xedatutakoaren arabera,

Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaketa moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera:

a) Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.
b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.
c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.

Kontratu honen izaera aintzat hartuta, enpresa esleipendunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Eskuartean izango duen materiala behar bezala diseinatu eta maketatzeko, ezinbestekotzat jotzen da zerbitzua aurrera eramango duen langileak edota langileek euskarazko C1 maila egiaztatuta izatea.
- Durangoko Udalarekiko harremanak:
  a) ahozko komunikazioetan euskara erabiliko da.
  b) komunikazio idatziak euskaraz egingo dira.

  Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen da Durangoko Udalarekiko solaskidetzaren ardura izandu duen langileak ere euskarazko C maila egiaztatuta izatea.

Aipatutako hizkuntza-baldintzek derrigorrezko betebehar-izaera izango dute, Sektore Publikoko Kontratuei

buruzko 9/2017 Legearen 211. artikuluak xedatzen duena aitzat hartuta, eta hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eragin dezake.

F. EPEA

Kontratuak urtebeteko (1) iraupena izango du, sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta urtebeteko hiru (3) luzapen egin ahal izango dira gehienez.

G. ORDAINKETA MODUA

Ordainketa lana entregatu eta faktura aurkeztu ostean egingo da, betiere, faktura elektronikoaz. Horretarako, kontratuaz arduratzen den Udaleko teknikariak oniritzia eman beharko du aldez aurretik.

Faktura elektronikoki (FACE) aurkeztu beharko da esteka honetan: https://face.gob.es/es.

Hauek dira faktura elektronikoak egiteko beharrezkoak diren DIR 3 kodeak:

Kontabilitate bulegoa	L01480274
Kudeatzen duen organoa	L01480274
Unitate organikoa	LA0023003

Durango, 24 de septiembre de 2026

Amaia Aranaga Libano
Euskara Teknikaria
Técnica de Euskara

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente